

“Esperientzia oso interesgarria da generoa arautzailea izateari uztea, funtzionatzeko modu bat zehazten duena izateari uztea, eta hala, generoa adierazpen bat bihurtzea, gure identitateaz disfrutatzea ahalbidetzen diguna bere aniztasun guztian”



## Getxoko Jabekuntza Eskolaren ikasturte amaierako topaketa

Getxoko Jabekuntza Eskolako ikasturte amaierako topaketan 70 ikasle inguruk parte hartu zuten. Ekainaren 6an egin zen RKE (Romo Kultur Etxea). Aurtengoan, emakumeen plazera eta sexualitatea aztertu dira, jolas eta prestakuntza izaerako saio baten bidez. Topaketa honetan bi prestatzaileraren sinergiak bateratu dira, eta plazera eta barrea (bir)konkistatzeko estrategiak eskaini dira. Hiru ordu inguruko hitzorduan, ikasleek hitzaldia entzun zuten, Tuppersex saio eta guzti, emakumeen plazeraz eta sexualitateaz, Inma Merino sexologoaren ahotik. Hautatutako formatuak




sexualitateari buruzko arauak eta sinesmenak hausteko aukera ematen du: sexualitatea ez da bakarrik sexua eta penetrazioa, baizik eta pertsonen arteko harremanak, eta seduzitzeko, erotizatzeko eta amesteko moduak. Gero, jendeak genero ikuspegia zuten ipuin erotikoen ikuskizuna gozatu zuen, *De miel y escalofrío* izenarekin, berriki Emakunderen Berdintasun Saria eskuratu duen Virginia Imaz pailazo eta kontalariaren eskutik. Ahalduntzeko, kontzientzia hartzeko eta gozatzeko topaketa honi azken ukitua emateko, parte hartzaileei luntxa eskaini zitzaion.

## “Entre todas” liburua argitaratu da, getxotarrek udalerrriaren historian egindako ekarpenari buruzkoa

*Entre todas* liburua emakumeek Getxoko historian egindako ekarpenaren inguruko ikerketa-bekaren emaitza da. Beka udalak ematen du, eta 10.000€ ditu. Haren helburua Getxoko emakumeen historia, eta bizitza kultural, sozial, ekonomiko edota politikoan egin duten ekarpena berreskuratzea eta ezagutzera ematea da. Halaxe egin du ikerketaren egilea den David Beorlegi Zarranzek. Hirurogeita hamarrek hamarkadatik gaur arte emakumeek soilik osatzen dituzten elkarten fenomenoak izan du hizpide. *“Liburuaren helburua ez da soilik taldeok ikusgarri egitea, baizik eta udalerrira hobetzeko lan egin eta egiten duten emakumeak omentzea, emakumei adierazpen, prestakuntza eta aktibismo feministarako bideak eskainiz”, azaldu du Beorlegik.*

Euren historia modu kronologikoan erakusten duten elkarteak Roda, Romo eta Algorta emakume batzordeak, Etxekoandreen Txokoa, Lagun Artean, Andrak, Etxekin, Gizatiar, Eskuz Esku, Sastraka Antisexista, Algortako Emakume Asanblada, Itzulbatzetako Emakumeen Asanblada, Bilgune Feminista, Enclave de Ciudadanas de Getxo eta Haziak. Liburua udalerriko liburategietan eta emakumeen elkarteetan dago eskuragarri. Berdintasun Zerbitzuan ere eskura daiteke: 94 466 01 36 edo [berdintasuna@getxo.eus](mailto:berdintasuna@getxo.eus)



## Anari Alberdi abeslari eta konpositorea, Adarra Saria eskuratu duen lehenbiziko emakumea

Anari Alberdi abeslari eta konpositorea, Azkoitin 1970ean jaioa, Adarra 2018 saria jaso du. Horrenbestez, Donostia Kulturak euskal musikako figura esanguratsuak saritzeko ematen duen bereizgarri hau jaso duen estreinako emakumea da. Hogei urte baino gehiagoko ibilbidean hainbat disko plazaratu ditu. 1996an *“Anari”* atera zuen, bere izen artistikoa izenburu. Gerora, *“Habiak”*, *“Zebra”*, *“Irla Izan”*, *“Zure aurrekari penalak”* eta *“Epilogo bat”* argitaratu ditu. Abeslariak hainbat arazoirengatik eskuratu du saria: bere ahotsaren-



gatik, Euskal Herriko musikan daudenetatik pertsonalenetako bat, bere testuen kalitateagatik eta mamiagatik, eta bere musikaren nortasunagatik. Haren izena aurreko lau edizioetan saria eskuratu dutenenei batuko zaie: Mikel Laboa, Ruper Ordorika, Benito Lertxundi eta Fermín Muguruza. Esan behar dugu saria **Mari Jose Recalde artista nafarrak sortutako eskultura dela**. Saria figura neutro bat da, adar batekin. Horrek musikaren jatorria dakar gogora, adarrak naturarekin eta gure erroekin duen lotura dela-eta.

Staff  
**EMEKI**

Argitaratzen du: Getxoko Udalaren Berdintasun Zerbitzua. Urgull z/g 48991 Getxo.  
Tel.: 94 466 01 36.  
e.posta: [berdintasuna@getxo.eus](mailto:berdintasuna@getxo.eus).  
Erredakzioa: Kahlomedia S. Coop  
Diseinua eta maketazioa: Bostnan Bilbao S.L.




# Gomendioak

Liburua

## “Microfísica sexista del poder, el caso Alcàsser y la construcción del terror sexual”, Nerea Barjola

Nerea Barjola ikerlari eta idazleak *Microfísica sexista del poder, el caso Alcàsser y la construcción del terror sexual* saiakera argitaratu du. Bertan azaltzen du 1992an gertatutako krimen hirukoitzak eta komunikabideek gertakariak egindako kontakizunak emakumeen askatasun pertsonalaren eta sexu-askatasunaren aurkako erasoak ekarri zutela. Bere tesian, Judith Walkowitzen lanaren ekarpenetatik abiatzen da Barjola, Jack errai-ateratzailearen krimenen eta Alcàsserreko krimenaren arteko lotura egiteko. Ikerlariak testuinguruaren analisia egiten du eta adierazten du kasu honetan ahozko narrazioan apurketa dagoela, mugimendu feministak Espainiako trantsiziotik egin dituen lorpen eta aldarrikapenei dagokienez. Modu berean, adierazten du, Jack errai-ateratzailearen kontakizuna bezalaxe, hilketa hirukoitz hau balazta bat izan zela, familia tradizionala indartu zuela, gizonak emakumeak babesteko papera sendotu zuela, eta gizonen boterea areagotu zuela emakumeen gorputzen gainean.



Audioa

## “Un hombre rubio”, Christina Rosenvingeren azken diskoa

Christina Rosenvingek Gasteizko Aholduntze Eskola itxi zuen, Aldabe Antzokian kontzertua eskainiz. Kontzertuan *Un hombre rubio* azken diskoko abestiak jo zituen. *Pikara Magazine*-ri duela gutxi eskainitako elkarrizketan, Rosenvingek bere diskoa aurkeztu zuen. Esan zuenez, diskoa “ni maskulino zehaztugabe batetik idatzita dago, eta maskulinitasunaren kartzelaz dihardut, atributu sozial bat dela ulertuta. Funtsezkoa da gizonak matxismoaren aurka matxinatu daitezela, emakumeak aholduntzen diren neurri berean. Hori da hurrengo urratsa, nire aburuz. Arrak azpian dagoen gizona jaten du. Bi seme dauzkat eta ondo dakit nerabezeroan nolako presioa jasan behar duten. Gizon helduentzat zaila da ustez pribilegio bat eta ez beste esklabotasun-mota bat denaren aurka matxinatzea”. *Un hombre rubio* diskoaren abiaburua *Romance de la Plata* singlea da. Artistak bere aitaren heriotzaren 26 urte bete ziren gauean idatzi zuen kantua; haren hitzetan, “aita ikaragarria zen, bere buruaren biktima”. Bada kantu bat Berta Cáceresen omenez, “Berta multiplicada”. Jendea haren hiletan ikustean idatzi zuen. Jendeak oihukatzen zuen Berta ez zegoela hilda, haren hazia leku guztietatik barreiatu zelako.

Bideoa

## “Call me by your name”, Oscar saria jaso duen LGBTI gaiko filma

Aurtengo Oscar sarietan, LGBTI film handia *Call me by your name* izan da. André Acimanen eleberriarren moldaketa da. Film honekin, gidoi egokiturik onenaren saria irabazi zuen **James Ivory** britainiarra, gay tematikako *Maurice* (1987) film ikonikoaren egilea. Obra honek laurogeiko hamarkadako uda ezti batera garamatza, Italia iparraldean. Amodioa pizten da hamazazpi urteko mutiko baten (Elio) eta haren aitaren laguntzaile berria den Estatu Batuetako gaztetxo baten (Oliver) artean. Filmak makina bat gogoeta egiten ditu hainbat gairen inguruan: norbere burua deskubritzea, amodiozko pasioaren leialtasuna, denboraren joanaren pisua, ... Kontakizun hau hunkigarria eta suntsigarria da aldi berean, daukan zintzotasun handiagatik. Zintzotasun hori bereziki bortitza da bi gizonen gorputzen eta arimen arteko lotura islatzean: giro aurrerakoi batean mugitzen diren arren, barne-beldur asko dituzte euren sexualitateari buruz. Amodioaren eta desamodioaren ahalmenearen inguruko ikerketa magikoa da.





# Heterosexuala zara? Nola dakizu?

Ez da kasualitatea bi galdera maltzur horiei dudarik izan gabe erantzuteko gai ez izatea, heterosexualitatea ez baita existitzen. Imaginario kolektiboan fenomeno naturala, jainkoaren legea edo lege fisikoa ba-

litz bezala ezarri den eraikuntza soziala eta kulturala da heterosexualitatea. Heterosexualitatea asmatutako arazo bat da, eta milaka pertsonen bizitza mugatzen du.

Heterosexualitatea ez da existitzen. Horixe da *Journal of Personality and Social Psychology* izeneko aldizkari zientifikoa argitaratutako ikerketa baten emaitza; lan horrek heterosexualitateari buruzko zenbait uste zapuztu ditu. Azterketa hori gauzatzeko sexu bietako ehunka parte-hartzaileen laguntza izan zuten. Parte-hartzaile horiek **mota ezberdinetako material pornografikoa** ikusi zuten eta ikerlariek beraien erantzun fisiologikoak aztertu zituzten. *“Oinarrian orientazio sexuala baloratzen duen azterketa da, eta horretarako begi niniak dilatatzeko diren edo ez aztertzen da. Inork ezin du hori kontrolatu”* baieztatu du **Ritch Savin-Williams-ek**, **esperimentuaren egileak** Azterketa horren emaitzek kolokan jartzen dituzte gizarteak sexualitatearen inguruan ezarritako kanonak, kontua “heteroa” edo “gay-a” izatea baino askoz ere konplexuagoa baita, eta beraz, frogatuta geratu da heterosexuallak beren heinean ez direla existitzen.

Elisabeth Badinter filosofo feministak heterosexualitatea erakunde politiko, ekonomiko, sozial eta sinboliko bezala definitzen du, derrigorrez bete beharreko arau bezala ezarri zena XIX. mende bukaeran. Bartzelonako Unibertsitateko soziologoa den Óscar Guasch-en iritziz, maitatzeko modu bat baino gehiago, azken 150 urteetan zehar hegemonikoa izan den bizitza estiloa da, soldatapeko lanari eta gizarte industrialari lotuta sortu zena. Era berean, genero aniztasunaren aldeko aktibista den Asier Santamaría-ek hauxe baieztatu du: *“Heterosexualitatea ez da orientazio sexual bat. Erregimen politiko bat da. Eta hori frogatzen duena heterosexualitatearen presuntzioa dagoela da. Hau da, gorputz guztiak heterosexuallak dira kontraktorik frogatu ezean. Erregimen politiko horretatik kanpo dauden guztiak arazoak sortuko dituzte”*.

## Aniztasun sexuala

Badira urte batzuk gizartea gizona-emakumea binomioa gaintzen hasi zenetik. Komunikabideetan geroz eta ohikoagoak dira beste genero esamolde batzuk, zehaztasun gehiagorik gizonen errealitatea adierazteko helburua dutenak. *“Genero binarismoa, Monique Wittig-ek dioen bezala, derrigorrezko heterosexualitate pertzepzioaren mende dago. Tranpa da bere horretan. Azaldu behar da arau ezak hori existitzen dela, nahiz eta zuk ez duzun ikusten eta arauan parte hartzeko baimenik eman ez duzun”* adierazi du Lucas R. Platero-k, soziologiako doktoreak.

**“Heterosexualitatea ez da orientazio sexual bat. Erregimen politiko bat da”.**

Gizakiak garen heinean, errealitatea sailkatzeko joera dugu, eta hala, errealitate hori bideragarriagoa bihurtzen da etiketen bitartez. *“Horrek alderdi on bat du, munduaren konplexutasunean ibiltzen laguntzen duelako, baina alderdi negatiboa ere badu, es-*



*tereotipoak ezartzeko eta simplifikatzeko joera bultzatzen duelako. Niretzako inflexio puntura iritsiko gara pentsatzen dugunean etiketa horiek gizonen ikuspuntutik datozela, eta etiketa horien barnean aniztasun guztia sartzen dela”* jakinarazi du Aitzole Araneta sexologoak. Sare sozialak aitzindariak izan dira gizona-emakumea binomiotik ateratzeko orduan, beste aukera asko eskaini baitituzte erabiltzaileak identifikatzeko. Androginoa, pansexuala, trabestia, trans femeninoa, trans maskulinoa edo queer, Facebook-en generoa aukeratzeko dauden 50 etiketa baino gehiagoen adibide dira. Joera hori jarraitu du baita ere Tinderek, bikotekidea bilatzeko aplikazio nagusietako batek. *“Arazoa identifikazio logiketan dago, eta ez hainbeste izenetan. Nik jendearengana esango nioke ez pentsatzeko hainbeste hitzetan, eta hausnartzeko izatea zer denari buruz, eta pentsatzeko nola ondorioztatzen dugun gizonak edo emakumeak garena. Gorputzak modu ezberdinetan irakurri daitezkeen testuak dira, erabiltzen dugun testuinguruaren arabera. Esperientzia oso interesgarria da generoa arautzailea izateari uztea, funtzionatzeko modu bat zehazten duena izateari uztea, eta hala, generoa adierazpen bat bihurtzea, gure identitateaz disfrutatzea ahalbidetzen diguna bere aniztasun guztian”* azpimarratu du Santamaría-ek. Deigarria dena da generoari buruz hitz egiten jarraitu ahal izateko terminologia glosario bat kontrolatu behar izatea, ustez barne hartu ezinezkoa eta aldakorra dena, eta segurua ez den inguruan zabalduaren sententzia ematen duena. *“Nik ez dut nahi generoari buruzko 40.000 hitz berri ikastea, nik nahi dudana da emakume-gizon identitate binario, hegemoniko eta arautzaileak sortu dituzten dinamika apurtzea. Jendeak genero esperientzia askatasunez eta aniztasunez bizi ahal izatea ahalbidetzen dugunean ikusiko dugu pertsonen bezainbesteko genero identitateak daudela”*, argitu du Santamaría-ek.

## Aniztasunaren tranpa

Hala ere, badaude bestelako iritzi batzuk, besteak beste Daniel Bernabé-k *La tranpa de la diversidad* izeneko liburuan adierazitakoak, aniztasun sexualaren teorien

aurrean kritikoak direnak. *“XX. mendeko iraultzetan pertsona ezberdinak batzen zituena bilatu nahi izan zuten, eta XXI. mendeko aktibismoak unitateen arteko ezberdintasunak*

**“Esperientzia oso interesgarria da generoa arautzailea izateari uztea, funtzionatzeko modu bat zehazten duena izateari uztea, eta hala, generoa adierazpen bat bihurtzea, gure identitateaz disfrutatzea ahalbidetzen diguna bere aniztasun guztian”**

*bilatu nahi ditu. Ez da arazoa bere horretan, baizik eta dibertsitatearen tranpa deitu dezakegun horren ondorioa. Autoreak jakinarazten du gizarte likidoa eta indibidualista sor-*

*tzeko arriskua dagoela, ezberdintasunean oinarritutakoa, eta ez batzen gaituenean. Horri dagokionez, Aranetaren iritziz: “Azkenean errealitatea beti gailentzen da eta errealitatea aniztasuna da, nagusiki partekatzen dugunean eta harremanetan jartzen gaituenean oinarrituta dagoena, ez gainontzekoetatik bereizten gaituen horretan oinarrituta dagoena. Ez dugu aniztasun guztia barneratzen, eta ezberdinak diren eta elkarren aurka dauden alderdietan egoteko ahaleginak egiten ditugu. Guztia baztertzaila bezala planteatzen dugu eta ez gehitzaile bezala, eta horrela, gatazka bermatuta dago. Ez da kasualitate gizonen eta emakumeen artean dagoen amorrua, indarkeriak, etab. Nik azpimarratu nahi dudana eman behar ditugun pausoak dira, edo zer egin dezakegun aniztasun hori lantzeko, hori egitea posiblea baita, eta gainera, gizakiok mundu honetan egoteko modu bakarra da”.* Genero aniztasunaren aldeko aktibistak ere oso argi du. *“Hemen pertsona guztiok dugu lekua, eta ezetz esaten dutenak, neskatoek zakilik ezin dutela izan diotenak eta mutikoek bulbarik ezin dutela izan diotenak, horiek daude soberan”*, bukatu du.

## TERMINOEN GLOSARIOA

Iturria: Asier Santamaría, genero aniztasunaren aldeko aktibista

**SEXUA:** Ikuspuntu biomedikoa kontuan hartuz, gorputzak irakurtzeko modu bat da. Historikoki, sexua genitalean oinarrituz definitu da. Hau da, zakila badu gizona da, eta bagina badu, emakumea. Gaur egun hori ez da horrela. Chrysalis elkartearen kanpainak argi utzi du zakila duten neskatoak eta bagina duten mutikoak daudela. Biomedikuntzan oinarritutako sexuaren ikuspegia ez da errealitatea, eraikuntza soziala baizik.

**GENERO IDENTITATEA:** Gorputzak testuinguru sozialean irakurtzeko modu bat da. Generoa izendatzeko sistema bat da, eta sexuei maskulino funtzionala eta femenino funtzionala lotzen die. Identitatearen adierazpen subjektibo bezala ere ulertu daiteke, alderdi gehiago barne hartzen dituena.

**ZISGENEROA:** Genero identitate binario bat sexu binario batekin lotzen duen patroien barne dagoen pertsona. Emakume sentitzen den emakume femenino bat, eta gizon sentitzen den gizon maskulino bat.

**TRANSGENEROA:** Zisgeneroa ez denarekin definitzen den identitatea.



# Jabekuntza Eskola

## Kulturarteko elkarrizketak: emakumeengandik eta desberdinak diren emakumeen artean biltzeko, hausnartzeko eta ikasteko talde-espazioa



**Kulturarteko Elkarrizketak** Getxoko Emakumeen Jabekuntza Eskolaren barruan kokatzen den espazioa da. Bere xedea, guztiek batera eta guztien jatorri desberdinetatik, emakumeek hausnartzeko aukera edukitzea da. Hausnarketa horiek identitateak eraikitzeko erei buruzkoak dira eta, horiei lotuta, gorputzen emaitzako opresio eta menpekotasun guztiei buruzkoak, botere-harremanei eta norgehiagokei buruzkoak. Aldi berean, solidaritatea eraikitzeko eta emakume guztiok zantzen gaituzten sistemen aurka konektatzeko, konplize bihurtzeko eta borrokatzeko eraikitzeko espazioa da. Aurten Bolivia, Peru, Paraguay, Mexiko, Honduras, Nikaragua eta Euskal Herriko emakumeek parte hartu dute.

Aurtengoa, tailerretan esku hartu duten emakumeek adierazi duten bezala, Getxoko Kulturarteko Elkarrizketaren 6. edizioa izan da: **espazio honetan begirunea, konfiantza eta enpatia lehenesten dira**. Parte hartzeko metodologia baten formatuarekin guztiek dute hitz egiteko, dinamiketan eta jokoetan parte hartzeko eta, batez ere, dena zalantzan jartzeko eta eztabaidatzeko, euren iritziak emateko... aukera. Askotarikoak diren emakumeen artean biltzeko, elkar

ezagutzeko eta taldean ikasteko espazioa sortuz pentsamendu kritikoa sustatuko dute.

Taldearen dinamizatzailea den **Cony Carranza Castrok** adierazten duen bezala, helburua emakume guztiei hitza ematea da, ahots guztiak entzunda eta, elkar entzuteko eta euren bizipenetatik eta egunerokoetatik ekarpenak egiteko prest egonda, pribilegio, zapalketa, desberdinak dituzten emakumeen hausnarketa pertsonala eta talde hausnarketa sustatuz.

2018ko urtarriletik maiatzera arteko ikastaro honetan, berriz ere, aparteko Dinamizatzaileen taldea egon da. Dinamizatzaile horiek galdera interesgarriak planteatu dituzte eta elkarrizketa, eztabaida eta era askotako erantzunak eragin dituzte.

**Itxiar Gandarias Goikoetxea:** Emakumeen arteko botere- eta norgehiagoka-harremanak, Feminismoa. Boteren inbertsioa ala erlazionatzeko era berriak? gaia landu du.

**Josefina Rocco San Felippo:** honekin "Mugei, tentsioei, bereizkeriari eta aintzatespenari buruz hitz egiteko aukera izan dugu. Nolako erlazioak sortzen dira emakumeen eta hiri-esparruen artean? Nola agertzen gara, nola ikusten gaituzte? Nola sentitzen gara?"

**June Fernàndez:** Gizarte komunikabideei buruzko hausnarketa burutu du: Emakume migratuei; badute eraginik guregan? Eskuordetzen gaituzte? Aukera dugu espazio batzuen eraginak izateko; aprobetxatu egin behar ditugu?

Amaitu zen egun berean ikastaroan parte hartu duten emakumeen iritziak entzuteko aukera egon zen, eta bideo hori hemen ikus daiteke: [Diálogos Interculturales 2017/2018](#)

"Beste toki batzuetatik etorri diren emakumeen ahotsak entzun ez diren espazioak irekitzea... uztartzen joateko espazioak, ez bakarrik emakume migratuekin, baizik eta Euskal Herriko emakumeekin. Eta bilbe hori ezagutzeko eta aintzateseko elkarrizketa iraunkor bihurtzea gure eskubide partikularrak eta talde eskubideak defendatzeko" **Gladys Giraldo**

"European Emakumeen aurkako arrazakeriaren eta indarkeriaren hazkuntzarekin funtsezkoa da, beste ekintza askoren artean, Emakume autoktonoen, migranteen, arteko alianztzak, hitzarmenak egituratzea, ez direla erlazio kolonialak, patriarkalak errepikatuko zainduta" **Amaia Pérez Orozco**.

### Getxoko Emakume Elkarteak

#### BILGUNE FEMINISTA

Elkarte Feminista  
[bfalgorta@gmail.com](mailto:bfalgorta@gmail.com)

#### ENCLAVE DE CIUDADANAS POR GETXO

Berdintasunaren aldeko Plataforma Zibikoa  
Martikoena 16  
[enclavegetxo@gmail.com](mailto:enclavegetxo@gmail.com)

#### ESKUZ-ESKU

Prestakuntza eta Garapenerako Emakumeen Elkarte  
Martikoena kalea 16, 1. solairua. 48992 Getxo  
Tel. 94 430 08 35  
[eskuz-esku@hotmail.com](mailto:eskuz-esku@hotmail.com)

#### GIZATIAK

Romo eta Areetako Emakumeen Gizarte eta Kultur Elkarte  
Gobelaurre parkea z. g. 4893 Getxo  
Tel. 94 463 50 12  
[gizartiar@hotmail.com](mailto:gizartiar@hotmail.com)

#### RODA

Kultur Elkarte  
Areetako Etorb., 10 behea esk.48930 Getxo  
Tel. 94 463 18 96  
[asociacion\\_roda@telefonica.net](mailto:asociacion_roda@telefonica.net)

#### MUJERES CON VOZ

Etorbin eta bertako emakumeen topaketak bultzatzen dituen elkarte da  
[asociacionmujeresconvoz@gmail.com](mailto:asociacionmujeresconvoz@gmail.com)



AITZOLE ARANETA  
PASAIKO UDALEKO PARTE HARTZE ETA BERDINTASUN TEKNIKARIA

## “Jatorrizko nahasmena da pentsatzea norbait bere genitalengatik dela den hori”

Aitzole Araneta sexologoa eta aktibista transfeminista da. *Stop Trans Patologización* izeneko kanpaina koordinatu zuen 2008. urtetik aurrera, transexualtasuna gaixotasun mental eta estigmatizat jotzeari uzteko aktibismoaren katalizatzaile

gisa. Gaur egun Pasaiako Udaleko Parte hartze eta Berdintasun teknikaria da. Ikuspegi horretatik, erakundeek sexu aniztasunaren alde jokatzeko duten paperaz jardun du.

**Nola uste duzu heldu ahal zaiola transexualtasunari tokiko politika publikoetatik?**

Nik uste dut transexualtasunari buruzko politika publikoak gainerako politika publikoen ondoan kokatu behar direla. Ez dut uste testuinguru berezia eman behar zaienik, transexualtasuna ez baita aparteko ezer. Hau da, ez da jendartetik isolatuta dagoen zerbait. Populazioa gizonak eta emakumeek osatzen dute, eta pertsona transexualak ez gaude sailkapen horretatik kanpo. Ez gara ezere ordezko, eta ez gara beste zerbait izan gura dugun jendea. Hemen aparteko gauza bat ez gairela adieraztean datza kontua. Hortik egin behar dugu lan, kolektibo honi buruz luzaro izan diren mitoak ezabatuz.

**Beraz, kolektibo honentzat politika on bat... mitoak desmuntatzeko lan egitea litzateke?**

Bai, adibidez okerreko gorputzean jaio garen pertsonak omen garela mitoak. Sinplifikazio hori egiten dugu, “gorputzak” esanez, baina berez “genitalak” esan gura dugu. Gure jendartean, genitalek morboa eta tabua sorrarazten dituzte. Ia inoiz ez ditugu ikusten, estali egiten ditugulako. Baina, aldi berean, pertsona askoren patua behin betiko markatzen dute, batik bat gizonen eta emakumeen euren genitalen arabera ezarritako txokotan sartzen ez diren pertsonen kasuan. Arau horretan sartzen ez direnek bazterketa jasaten dute. Ulertu behar dugu jende transexualaz ari garenean ez gairela hormonez ez ebakuntzez ari, baizik eta inposatutako nortasunaz eta sentitzen dugun nortasunaz. Ez gara ezere ordezko. Ez dugu beste zerbait izan nahi: dagoeneko bagaren, betidanik izan garen eta beti izango garen jendea gara.

**Zentzu horretan, hezkuntzak funtsezko papera jokatzeko du?**

Hezkuntza-sistemak arestian aipatu ditugun mitoak erruz transmititzen ditu. Beharrezkoa da irakasleekin eta hezkuntza informaleko profesionalekin esku hartzea, estereotipoak eta nahitaez izan behar ditugun formak transmititzen dituztelako, izateko dauden modu guztiak kontuan hartu beharrez. Hezkuntzako eta osasuneko profesionalentzat prestakuntza bereziak proposatzea oso abiapuntu interesgarria litzateke, txikitatik aldean daramagun mitologia hori guztia astintzeko. Aniztasunaren inguruko hezkuntza hori sustatzea funtsezkoa da, gertatzen diren aurrerapen sozial puntaletatik haratago.

**Beste elkarrizketa batzuetan entzun dut “transexual” hitza zalantzatan jartzen duzula.**

Hala da. Hitz honek ez du errealitatea islatzen, okerreko informazioa ematen baitu. Nor da, benetan, transexualtat jotzen dugun jendea? Hitz horren bidez, sexualitatez edo sexuz aldatzen duten pertsonak aipatu nahi ditugu, eta sexua genitaleara murriztu dugu. Ordea, jende “transexuala” ez da berriro jaiotzen; ez da aldatzen nor diren. Besterik da gainerakoek euren begiratzeko modua aldatzea. Baina, nolahi ere, bidaia hori, begirada-aldaketa hori, besteek egin dute. Jatorrizko nahasmena da pentsatzea norbait bere genitalengatik dela den hori. Bizi dugun momentu historikoan, agian hobe da “transexuala” esatea, ezer ez esatea baino, baina izatekotan, uste dut ulertu behar dugula okerra ja-

torrizkoa dela eta soziala dela: genital batzuei nortasun zehatz bat esleitzea.

**Herrialde askok hizkuntzan aldaketak egin dituzte genero ez-binarioei ikusgarritasuna emateko. Zure ustez beste herrialde batzuk aurreratuago daude gai hauetan?**

Sarri askotan iparraldeko herrialdeak erreferentzia gisa hartzen ditugu, aurreratuago daudelakoan. Eta zergatik ez Indonesiako tribuak? Han, alua daukaten gizonak eta zakila daukaten emakumeek euren lekua izan dute beti. Agian teknologikoki ez dira hain aurreratuak, baina betiere beste erreferentzia batzuk badaude, zeintzuetan izateko eta existitzeko modu ezberdinek lekua aurkitu duten, hainbat eratan. Erakundeek euren politiketan beste nortasun batzuk aintzat hartzearen detaile puntualatik

urrunago, nik uste dut benetan aniztasunez hitz egiten hasiko garela fase hori gainditu eta kontu hori continuum amaigabe batean, denontzat lekua daukanean, planteatzen dugun momentutik aurrera. Continuum hori ez da gizon-emakume nortasunetatik haratago joatea, baizik eta gure baitan dauden sexu-izaera guztien aniztasuna onartzea, nahiz eta gizon eta emakume nortasuna izan. Praxiak jantzi zituen edo soldatapean lanean hasi zen lehenbiziko emakumea binarioa zen? Alua daukan gizon bat, historikoki nortasuna ukatu zaiona, binarioa da? Errealitate hori testuinguru zabalagoan txertatu behar dugu: munduan, pertsona adina izaera daude. Eta, noski, errealitate ez dena da emakume idealaren eta gizon idealaren figura arketipikoak, edo, hobeto esateko, inposatutako emakumearena eta inposatutako gizonarena.

